



# ➔ JOKO GAZTEA

Legeak adingabeek diruarekin apustuak egitea debekatzen badu ere, gero eta gehiago dira ausazko jokoetan apustuak egiten hasten direnak. Joko-mota horrek nerabe-gazteen artean duen prebalentzia handia kezkarria da. Jardunbide horren arriskuen gainean sentsibilizatzea eta prebentzioa egitea guztion zeregina da.

## ➔ JOKATZEN DUTE ALA EZ?




Espanian jokalariairen profila gero eta gazteagoa da. **2,2/10** 25 urtetik beherakoa



**% 6,4** Azken urtean (2021) online zein aurrez aurre dirua jokatu dutenen 14 eta 18 urte arteko pertsonak.

**% 9,4** Azken urtean (2021) dirua online jokatu duten 14 eta 18 urte arteko pertsonak.

### ➔ NOIZ HASTEN DIRA DIRUAREKIN JOKATZEN?



Adingabe batzuen ustez, "normala" da adingabea izanik diruarekin jokatzeko edo jokatu izana.


**15 urte** online jokoetan hasteko batezbesteko adina  
**14.6 urte** aurrez aurreko jokoetan hasteko batezbesteko adina

**14 urtetik beherako bost gaztetik 1ek joko-aretoen batean jokatu izan du.**

DATUA

FAD Juventud fundazioa


## ➔ ZERGATIK JOKATZEN DUTE DIRUAREKIN?




Faktore sozialak. "Kuadrilla". Gizarte-harremanak eta dibertsioa sustatzea, eta taldearen aitortza lortzea.




Faktore emozionalak. Frustrazioa eta asperdura gainditzeko edo emozio desatseginetatik ihes egin, distraitu edota aldatzea lortzeko.



Faktore neuropsikologikoak. Jokabide batek plazerra eragiten duenean garunean aktibatzen den sari-sistema.




Faktore ekonomikoak. Ausazko jokoei buruzko uste okerrak oinarri hartuta dirua erraz irabaztea.



Helduaroan sarbide erraza eta normalizazioa. Normalizatuta eta hedatuta dauden jokabideak imitatzea.




Sentsazio eta bizipen berriak bilatzea. Arriskuak, berrikuntzak erakartzea.




Publizitatearen eragina. Ausazko jokoei eta apustuei buruzko "bonbardaketa" publizitarioak jokatzeko grina areagotzen du.

## ➔ ARAZOAK AUSAZKO JOKOAREKIN



**% 7,9** 14 eta 18 urte arteko gazteek online dirua jokatu dute egunero azken 12 hilabeteetan.



**% 3,9** Adierazi du egun bakar batean gastatutako diru-kopururik handiena 300 eurotik gorakoa izan dela.



**% 4,7** 14 eta 18 urte bitartekoek arazoren bat gara dezakete ausazko jokoekin.




**% 12,45** 18 eta 25 artekoek ausazko jokoekin arazoak izatearen sintomak garatu dituzte.


## ➔ FAMILIAREN EGINKIZUNA



**ERREFERENTZIA IZATEA**  
Familia nerabeentzako toki seguru eta erreferente gisa.



**ULERTZEKO MODUA**  
Ez pentsatzea ausazko jokoak arriskurik ez duela eta ez normalizatzea.



**ARRETA**  
Arrisku-jokabideak zaintzea (diru-falta, erreakzio neurrigabeak...).



**ARAUAK ETA MUGAK**  
Adinaren araberako arauak eta mugak jartzea.




**HITZ EGITEA**  
Arreta eskaintzea espazioa utziz, hitz egitea eta eztabaidatzea (pentsamendu kritikoa).



**LAGUNTZA**  
Egoera problematikoen aurrean, profesionalen laguntza eskatzea.

## ➔ PUBLIZITATEAREN BOTEREA




JOKATZEKO GOGOIA pizten du eta AUSAZKO JOKOA NORMALIZATZEN du. Eragin handia du diru erraza, dibertsioa, arriskua, arrakasta eta bestelako balioak erabiltzen dituelako.




**JOKOA ARAUTZEKO LEGEA (2011)**

Lege-oinarria da eta hainbatetan eguneratu da errealitate berriei egokitzeko, besteak beste: kirol-babesleak, publizitate-emanaldiak eta ausazko jokoei buruzko publizitatearen pertsona ospetsuak agertzea.




➔ **IKUS-ENTZUNEZKO FORMATUA** (telebista, irratia, YouTube eta beste plataforma batzuk). **Ordu mugatua** (goizeko ordu batetatik bostetara soilik) Loteriak kanpo geratzen dira.



➔ **ETA ZER EGINGO DUGU HORREKIN?** Gazteei bideratutako publizitatea arautu gabe eta mugarik gabe. Streamer batzuek beren apustuak zuzenean ematen dituzte entretenitzeko modu gisa. Tipster-ak edo apustu-iragarleak apustu "errentagarriei" buruzko gomendioak salduz aberasten eta jokalaria berriak erakartzen.

## ➔ [www.jolastualajokatu.org](http://www.jolastualajokatu.org)

Familien prestakuntza-premiei erantzuteko webgunea. Ausazko jokoei eta kirol-apustuei buruzko informazioa ematen du, nerabe eta gazteek errealitate horrekin duten harremana nolako den jakin ahal izateko. Jokari eta nafar gazteei buruzko edukiak jasotzen ditu, gazteentzako eta familientzako jarraibide eta baliabideekin.



DATUA

"Espainiak du Europako tasarik altuena ludopatia duten 14 eta 21 urte arteko gazteen artean".

Guillermo Ponce, adikzioetan espezializatutako psikiatra.

"16 urte nituenean, institutuan, inguruko taberna batera joaten nintzen lagunekin apustu egin eta dibertitzeko; 1 edo 2 euro, besterik ez. 18 urte bete nituen eta debekuak desagertu ziren. 'Joko-aretoetako mundu perfektura' sartzeko garaia zen, bertan dena 'dibertsioa' eta 'zorientasuna' baita. Une horretatik aurrera, egoera arriskutsua bihurtzen hasi zen"

Mikel, jokalaria ohia



GEHIAGO JAKIN NAHI AL DUZU?

